

Datu-babesaren arautzea Europar Batasunean eta Espainian: garapena eta egungo markoa

Andoni Polo Roca
Abokatua

Etengabeko garapena izan du datuen babeserako eskubideak, bai eta haren arautzeak ere. Teknologia berriek eta gure datu pertsonalak arriskuan jartzeko modu berriek hala bultzatuta, datu-babesari buruzko arautze bat eraikitzen saiatu ziren, besteak beste, Europako Kontseiluaren 1981eko Hitzarmena edo 95/46/CE Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, urriaren 24koa. Bi dira, egun, eskubide hau arautzen duten arauak: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, Europar Batasunean, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa, Espainian. Eskubide hau edukiz betetzea izan dute helburu arau biek ala biek, eta datu-babesari buruzko arautze berri bat ekarri dute: interesdunaren eskubide berriak, Datu Babeserako Ordezkarria, printzipio gehiago (gardentasuna, xedea mugatzea, datuak minimizatzea, adibidez), datuen babesa diseinutik eta lehenetsita, datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazioa, etab.

GAKO-HITZAK: Datu-babesa · DBEO · Europar Batasuna · Adostasuna · Datuen titularren eskubideak.

The regulation of data protection in the European Union and in Spain: evolution and current framework

The right to data protection has been in constant development, and so its regulations. Driven thus by the new technologies and new ways of putting our personal data at risk, an attempt was made to create a legal framework for data protection with such regulations as the 1981 Council of Europe Convention or the Directive 95/46/EC of the European Parliament and of the Council of 24 October 1995 (Data Protection Directive), among others. There are currently two regulations that mainly regulate this right: Regulation (EU) 2016/679, of the European Parliament and of the Council, of 27 April 2016, on the General Data Protection Regulation (GDPR), in the European Union, and Organic Law 3/2018, of 5 December, on the Protection of Personal Data and Guarantee of Digital Rights, in Spain. These two regulations are intended to provide this right with content, and have built a new legal regime in relation to data protection: novelties such as new data subject rights, Data Protection Officer (DPO), more principles (v. gr. transparency, purpose limitation, data minimisation), privacy by design & by default, data protection impact assessment (DPIA), etc.

KEY WORDS: GDPR · Data protection · European Union · Consent · Rights of data subjects.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.116.2021.6>

Jasotze-data: 2020-01-15 *Onartze-data:* 2020-03-23

Siglak eta laburdurak

- 29LT: 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldea
- 95/46/CE Zuzentaraua: 95/46/CE Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, urriaren 24koa, datu pertsonalen tratamenduaren inguruan pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa
- AG: Auzitegi Gorena
- AGE: Auzitegi Gorenaren epaia
- APAPEL: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
- ARSLOP eskubideak: sarbide-eskubidea, zuzentze-eskubidea, ezabatze-eskubidea, mugatze-eskubidea, aurkaritza-eskubidea eta eramangarritasunerako eskubidea
- BOE: Estatuko Aldizkari Ofiziala (*Boletín Oficial del Estado*)
- DBAE: Datuak Babesteko Espainiako Agentzia
- DBEO: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien zirkulazio askearen inguruan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena —Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra—
- DPBEBLO: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa
- DPBZAE bis: 2018/1725 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2018ko urriaren 23koa, datu pertsonalen erakundeen eta organismo komunitarioen tratamenduaren inguruan pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa eta 45/2001 (EE) Erregelamendua eta 1247/2002/EE Erabakia indargabetzen dituena
- DPBZAE: 45/2001 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2000ko abenduaren 18koa, datu pertsonalen erakundeen eta organismo komunitarioen tratamenduaren inguruan pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa
- EB: Europar Batasuna
- EBFT: Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Trataturua
- EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
- EBJAE: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia
- EBOEG: Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna
- EEJA: Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia
- EK: Espainiako Konstituzioa
- GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia
- GEEAE: Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia
- IPDBLO: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa
- IPDTALO: 5/1992 Lege Organikoa, urriaren 29koa, izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzen duena
- JAN: Justizia Auzitegi Nagusia
- JANE: Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia

- KA: Konstituzio Auzitegia
- KAE: Konstituzio Auzitegiaren epaia
- OJ: Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala (*Official Journal of the European Union*)

1. Sarrera

Modu etengabean egin du gora gizartearen kontzientziazioak datu-babesaren eremuan, teknologia berriek ekarritako aldaketa azkarrak direla bide.

Teknologia berriek (5G teknologia edo adimen artifiziala, kasu) herritarrok gure datuen gaineko kontrola galtzea ekar dezakete, eta, ondorioz, datuen babeserako eskubidearen suntsipena, aldi berean, herritarrak teknologia horien guztien aurrean babesgabe geratuz¹. Hori izango dugu aztergai lan honetan: nola eraiki den datuen babeserako eskubidea, nola arautu den egun, eta araudi eta legedi hori indartsua denetz teknologia-aurrerakuntzei aurre egiteko.

Azterlan honetan, beraz, datu-babesaren garapena eta horren arautzea Espainian eta EBn izango dugu ikergai, baita egungo arau-egitura ere. Horretarako, 2016. eta 2018. urteek datu-babesaren eremuan ekarritako bi arau garrantzitsu izango ditugu ardatz: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien zirkulazio askearen inguruan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena —Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO)—, Europar Batasun (EB) eremuan; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (DPBEDBLO), Espainian.

2. Izaera pertsonaleko datuen babesa Europa mailan: 108. Hitzarmena (1981) eta 108.+ Hitzarmena (2018)

Arauketa handia dauka egun izaera pertsonaleko datuen babesak Europa mailan; hala, estatu kideen legedi nazionaletik kanpo irten da.

1973an, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak 1973ko irailaren 26ko 73. zk. Ebazpena² eman zuen, estatuak sektore pribatuko datu-bankuetan zeuden izaera pertsonaleko datuen erabilera okerra edo abusuzkoa ekiditeko neurriak har zitzaten, eta, urtebete geroago, 1974ko irailaren 20ko 74. zk. Ebazpena³, baina, oraingo honetan, sektore publikoaren datu-bankuei buruzkoa. Horri AEBko 1974ko *Privacy Act*⁴ gehitu behar diogu, Europa osoko araudi eta legediaren aitzindari izan baitzen.

1. Jané, C. (2019): «La protección de datos se queda corta ante la inteligencia artificial», *El Periódico*, <https://www.elperiodico.com/es/sociedad/20190127/proteccion-datos-inteligencia-artificial-7270600?utm_source=twitter&utm_medium=social> (azken bisita, 2020-03-14).

2. Resolución n.º 73 de 26 de septiembre de 1973, relativa a la protección de la vida privada de las personas físicas respecto de los bancos de datos electrónicos en el sector privado.

3. Resolución n.º 74 de 20 de septiembre de 1974, relativa a la protección de la vida privada de las personas físicas respecto de los bancos de datos electrónicos en el sector público.

4. *Privacy Act of 1974*, 1974ko abenduaren 31koa, Pub. L. 93-579, 88 Stat., 1.896.-1.910. or.

Aipatutakoak datu-babesaren hastapentzat har ditzakegun arren, Europar datu-babesari buruzko lehendabiziko «arau orokorra» honakoa dugu: Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena, 1981eko urtarrilaren 28koa, izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatuen aurrean pertsonak babesteari buruzkoa⁵ («Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena»). Hitzarmenak datuen babeserako oinarritzko definizio eta printzipioak jaso zituen, baita hitzarmenaren jarraipena egingo zuen batzorde aholkularia sortu ere (18. art. eta hur.). Itun honekin datuen babesari buruzko oinarritzko printzipioak ezarri ziren nazioarte mailan (Bennett eta Raab, 2006: 85. or. eta hur.).

1981eko 108. Hitzarmenak jaso zuen izaera pertsonaleko datuak ezingo direla modu automatikoan tratatu, barne-zuzenbideak berme egokiak aurreikusten ez baditu⁶. Horrez gain, testuak estatu sinatzaileen konpromisoa jaso zuen, itunak berak barne bildutako printzipioak eraginkor bihurtuko dituzten baliabide eta zehapenak jasotzeko helburuarekin.

Nazioarteko itun honek estatuen barne-araudia harmonizatzeaz aparte, datuen babesari buruzko legegintza-armazoi edo -egitura egiteko lehendabiziko pausoa izan zen (Campuzano, 2002: 79).

Haatik, loteslea izanagatik, ahuleziak ere bazituen 1981eko Hitzarmenak: itunaren printzipioak garatzeko aukera eman zitzaien estatuei, baita nahi zituzten salbuespenak ezartzeko aukera ere; horrela, Hitzarmenak babestutako datu batzuk babesik gabe gera zitezkeen estatu parte baten legedian, haren berreste-tresnak hala jasotzekotan.

2018. urtean 1981eko Hitzarmena berrikusi zuen Europako Kontseiluak, Ministro Batzordearen 128. bilkuran protokolo baten bidez, eta honako hau dugu bertsio berrikusia egun: 2018ko Europako Kontseiluaren 108.+ Hitzarmena, izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren aurrean pertsonak babesteari buruzkoa⁷ («Europako Kontseiluaren 108.+ Hitzarmena»). Bertsio berriak zaharra du oinarri, baina 1981eko bertsioa berritzea izan du xede; definizio batzuk findu, eta azken hogeita hamazazpi urte hauetan egondako teknologia-berrikuntzak jaso ditu.

5. Convenio n.º 108 del Consejo de Europa para la protección de las personas con respecto al tratamiento automatizado de datos de carácter personal, hecho en Estrasburgo el 28 de enero de 1981. Espainiak 1984ko urtarrilaren 27an berretsia.

6. 1981eko 108. Hitzarmenaren 6. art.: «Los datos de carácter personal que revelen el origen racial, las opiniones políticas, las convicciones religiosas u otras convicciones, así como los datos de carácter personal relativos a la salud o a la vida sexual, no podrán tratarse automáticamente a menos que el derecho interno prevea garantías apropiadas. La misma norma regirá en el caso de datos de carácter personal referentes a condenas penales».

7. Izen osoa: Convenio n.º 108 del Consejo de Europa, de 28 de enero de 1981, para la protección de las personas con respecto al tratamiento automatizado de datos de carácter personal, modificado por el Protocolo que modifica el Convenio del Consejo de Europa para la protección de las personas con respecto al tratamiento automatizado de datos de carácter personal (STCE n.º 108), adoptado por el Comité de Ministros en su Sesión n.º 128ª el 18 de mayo de 2018. Eskuragarri hemen: <<https://rm.coe.int/convention-108-convention-for-the-protection-of-individuals-with-regar/16808b36f1>>.

Hitzarmenaren balioa handia da; izan ere, Espainiak hitzarmena behin berretsia, barne-ordenamenduaren parte izango dugu (EK 96.1. art.), baita datuen babeserako eskubidea interpretatzeko oinarri ere (EK 10.2. art.).

3. Europar Batasuneko araudiaren sorrera, garapena eta egungo egoera

3.1. Europako Kontseilutik, Europar Batasunera: 108. Hitzarmenetik (1981), 95/46/CE Zuzentaraua (1995)

Europako Kontseiluaren 1981eko Hitzarmenak emandako pausoak datuen babesari bultzada eman zion, baina horren ahuleziak ikusita, EBk araudi propio bat egiteko beharra ikusi zuen. Gauzak horrela, 1995. urtean, arau berri bat onartu zuen EBk: 95/46/CE Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, urriaren 24koa, datu pertsonalen tratamenduaren inguruan pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa. Arau horrekin, EBko datuen babeserako araudiari hasiera eman zitzaion (Bennett eta Raab, 2006: 93. or. eta hur.).

95/46/CE Zuzentarauak 1981eko Hitzarmenak datu-babesari buruz jaso zuena zabaltzea eta osatzea eta estatu kideen artean zeuden desberdintasunekin bukatzea zituen helburu, bai eta «informazioaren eremu europar bat eratzea» ere (Conde, 2005: 55). 95/46/CE Zuzentarauak 1981eko Hitzarmenaren printzipio berak jaso eta barneratu, eta kaltetuen eskubideak zabaldu zituen (Guach, 2014: 21); hiru urteko epea eman zitzaion estatu kideei zuzentarauaren nazio-egokitzapena egin zezaten (32. art.). 1995. urteko arau horrek ideia nagusi moduan jaso zuen estatu kideek bermatu behar zutela «pertsona fisikoen askatasunen eta oinarrizko eskubideen babesa, eta, bereziki, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez»⁸. Datuen tratamendurako ageriko, zalantzarik gabeko eta informatutako adostasunaren beharkizuna, gainera, 95/46/CE Zuzentarauak jasotako babesaren oinarrizko elementua da (Howard eta Jones, 2005: 323).

Datu pertsonalen babesaren araudian sakontzeko asmoz, era berean, 2001. urtean, EBk honako arau hau onartu zuen: 45/2001 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2000ko abenduaren 18koa, datu pertsonalen erakundeen eta organismo komunitarioen tratamenduaren inguruan pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (DPBZAE). DPBZAEk EBko erakundeek, datu pertsonalen tratamendua egiterakoan, jarraitu beharreko araubidea jaso zuen; hau da, EBko administrazio osoak jarraitu beharreko datu-babesari buruzko araudia. Hala, EBk datu-babesari buruzko araudia osatu zuen: 95/46/CE Zuzentaraua norbanako pribatuen arteko harremanetan, eta DPBZAE EBko erakundeen eta norbanakoen arteko harremanetan.

3.2. Datu-babesa, eskubide

Datu-babesaren garapena hazten joan zen 1995etik aurrera, eta, egun, hura oinarrizko eskubide moduan jaso dute EBren oinarrizko arauak. Hala, datuen babeserako eskubidea beren-beregi jasotzen dute EBOEGk (8.1. art.) eta EBFTk

⁸ 95/46/CE Zuzentaraua, 1. art.

(16.1. art.): «Toda persona tiene derecho a la protección de los datos de carácter personal que la conciernan».

Horrez gain, digitalizazioaren egitura juridikoan lan egiten ari da EB buru-belarri, eta, hori dela eta, «pribatutasunaren eta datu-babesaren Europa» esaldia aldarri bihurtu du.

3.3. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016)

Eguneko erronkei aurre egiteko asmoz, egun indarrean den araua onartu zuen 2016. urtean EBk: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien zirkulazio askearen inguruan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena —Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO)—. Arau horrekin 95/46/CE Zuzentaraua, urriaren 24koa, berritu eta eguneratu zuen EBk.

Indarraldiari dagokionez, DBEO 2016. urtean indarrean sartu bazen ere, 2018ko maiatzaren 25az geroztik da ezargarri (99. art.).

DBEOren lehenengo puntu garrantzitsu edo indartsu bat bere lurralde-ezarpena da (Delgado, Puyol eta Lopez-Jurado, 2018: 21. or. eta hur.). Erregelamendua datu pertsonalen tratamenduari ezarriko zaio, tratamenduaren arduradunak edo eragileak EBn duen establezimendu baten jardueren esparruan, kontuan hartu gabe tratamendua Batasunean gertatzen den ala ez (3.1. art.).

Horrez gain, subjektu-irizpideari jarraitzen dion mendekotasun bat ere jasotzen du DBEOk (*interesdun* izenarekin). Hala, DBEO ezargarri izango da interesdunak EBn bizi direnean (egoitza EBn) eta tratamenduaren arduraduna edo eragilea EBtik kanpo kokatuta dagoenean, baldin eta tratamenduaren jarduerak alor hauekin lotuta badaude (3.2. art.):

- a) EBn interesdun horientzat dagoen ondasun edo zerbitzuen eskaintza.
- b) Interesdun horien portaeraren kontrola, portaera hori Batasunaren barruan gertatzen den neurrian.

Modu horretan, EBko datuen babeserako araudia zabaldu egin du DBEOk (Rebollo eta Serrano, 2018: 46).

DBEOk daukan beste alderdi indartsu bat erregelamendua bete dadin ziurtatzeko arauak jasotako neurri eta zehapenak dira; hots, zehapen-arloan ekarri duen harmonizazioa. Aurreko arauak, 95/46/CE Zuzentarauak, estatu kideei zehapenak jasotzeko betebeharra ezarri zien, baina zuzentarauaren agindu horrek estatu kideen arteko asimetria hutsa ekarri zuen, eta, ondorioz, datuen babeserako eskubidea bermatzeko erritmoan abiadura ezberdinak egotea (Rallo, 2012: 37. or. eta hur.).

Zehapen nahiko gogorak aurreikusi ditu DBEOk; altuenak 20 milioi eurorainokoak dira, edo, enpresa bat denean, aurreko finantza-ariketako urteroko bolumen globalaren % 4ko zenbatekoa⁹.

1. taula: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren aragai zehatz batzuk.

Araugaia	Kokapena DBEOn
Ezarpen-eremua	<i>I. Kapituluak: 2. eta 3. artikulua</i>
Printzipioak	<i>II. Kapituluak</i>
Tratamenduaren printzipioak	<i>II. Kapituluak: 5. artikulua</i>
Tratamenduaren legezkatze-oinarriak	<i>II. Kapituluak: 6. artikulua</i>
Interesdunaren eskubideak	<i>III. Kapituluak</i>
Tratamenduaren arduraduna	<i>IV. Kapituluak, 1. Atala: 24.-27. artikulua</i>
Tratamendu-eragilea	<i>IV. Kapituluak, 1. Atala: 28. artikulua</i>
Datu Babesari buruzko Eraginaren Ebaluazioa	<i>IV. Kapituluak, 3. Atala</i>
Datu Babeserako Ordezkaria (DBO)	<i>IV. Kapituluak, 4. Atala</i>
Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak	<i>V. Kapituluak</i>
Zehapen-araubide orokorra	<i>VIII. Kapituluak: 83. eta 84. artikulua</i>

Iturria: autoreak berak eginda.

DBEOz gain, EBk 2001. urteko DPBZAE ere berri zuen 2018. urtean arau berri batekin: 2018/1725 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2018ko urriaren 23koa, datu pertsonalen erakundeen eta organismo komunitarioen tratamenduaren inguruan pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa eta 45/2001 (EE) Erregelamendua eta 1247/2002/EE Erabakia indargabetzen dituena (DPBZAE *bis*).

Hala, DPBZAE *bis* DBEOrekin batera egongo da indarrean, biek ala biek ezarpen-eremu ezberdina baitute (2. art.), «EBko erakunde-norbanako» eta «norbanako-norbanako» harremanetan ezargarri, hurrenez hurren.

Ez dugu ahaztu behar, beraz, EBko datu-babesaren eremuko araudian hainbat arau edukiko ditugula: DBEO, DPBZAE *bis*, *e-Privacy* Erregelamendua¹⁰, etab.

9. DBEO 83.5. art.: «Las infracciones de las disposiciones siguientes se sancionarán [...] con multas administrativas de 20 000 000 EUR como máximo o, tratándose de una empresa, de una cuantía equivalente al 4 % como máximo del volumen de negocio total anual global del ejercicio financiero anterior, optándose por la de mayor cuantía: [...]»; baita DBEO 83.6. art.: «El incumplimiento de las resoluciones de la autoridad de control [...] se sancionará [...] 20 000 000 EUR como máximo o, tratándose de una empresa, de una cuantía equivalente al 4 % como máximo del volumen de negocio total anual global del ejercicio financiero anterior, optándose por la de mayor cuantía».

10. Honi dagokionez, *e-Privacy* Erregelamendua oraindik ez dago indarrean, proposamen-izaera dauka oraingoz: Erregelamendu Proposamena, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, komunikazio elektronikoen sektorean bizitza pribatua errespetatzeari eta datu pertsonalak babesteari buruzkoa eta 2002/58/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Pribatutasunari eta komunikazio elektronikoei buruzko Erregelamendua). COM/2017/010 final - 2017/03 (COD).

4. Datu-babesari buruzko Espainiako legedia

Espainiari dagokionez, 1978. urteko Konstituzioak (EK) informatika aurreikusi zuen, eta, intimitate-eskubidea jasotzeaz aparte (EK 18.1. art.), teknologia eta intimitateari buruzko artikulua zehatz bat jaso zuen, EKren 18.4. artikulua: «La ley limitará el uso de la informática para garantizar el honor y la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y el pleno ejercicio de sus derechos». Horri jarraipena eman zioten hainbat legek; 1992an hasitako bidea.

4.1. Datuen babesaren hastapenak Espainian: IPDTALO (1992) eta IPDBLO (1999)

Espainia mailan, datu-babesaren eremuan izango dugun lehenengo araua honakoa da: 5/1992 Lege Organikoa, urriaren 29koa, izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatu arautzen duena (IPDTALO), 1992. urtean onartu zena. Berrikuntza hutsa izan zen IPDTALO Espainian, datu-babesari buruzko lehenengo araudia sortzeaz gain, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (DBAE) sortu zuelako ere¹¹ (datu-babesari buruzko legedia betetzen den edo ez kontrolatzeko erakundea).

Ondorengo araua 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa (IPDBLO) izango dugu, 1999. urtekoa. Lege horrek ez zuen Zioen Adierazpenik izan, une horretako zehapen-araubiderik altuena zeukan, DBEA mantendu zuen, fitxategi automatizatu eta ez-automatizatu zitzaizen ezargari eta 1992ko IPDTALO indargabetu zuen.

Halaber, IPDBLOren bi printzipio aipatzea beharrezkoa zaigu, jurisprudentziak jorratu behar izan dituelako eta egungo datu-babesari buruzko legedian ere aurkituko ditugulako: egokitasun-printzipioa (*principio de pertinencia*)¹² eta helburu-printzipioa (*principio de finalidad*)¹³. Bi printzipio horien arabera, jasotako datuek helbururako egokiak izan behar dute eta datuak jaso diren helburuarentzat ez erabiltzearen debeku argia ezartzen dute printzipiook^{14,15}, «helburu zilegia» gako moduan ulertuta (Álvarez-Cienfuegos, 1999: 31).

Horri guztiari beste printzipio bat gehitu behar diogu: datuen kalitate-printzipioa. AGk horrela ulertzen du printzipio hori: «Datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren araudiaren funtsezko ardatzetako bat da, eta eskatzen du datuek zehatzak, egokiak eta jaso diren helburuetarako proportzionalak izan behar dutela»^{16,17,18}.

11. IPDTALO 34.1. art.: «Se crea la Agencia de Protección de Datos».

12. «Los datos de carácter personal sólo se podrán recoger para su tratamiento, así como someterlos a dicho tratamiento, cuando sean adecuados, pertinentes y no excesivos en relación con el ámbito y las finalidades determinadas, explícitas y legítimas para las que se hayan obtenido» IPDBLO 4.1. art.

13. «Los datos de carácter personal objeto de tratamiento no podrán usarse para finalidades incompatibles con aquellas para las que los datos hubieran sido recogidos» IPDBLO 4.2. art.

14. ANE 1914/2004, martxoaren 17koa, 4. ZO.

15. ANE 3755/2002, ekainaren 14koa, 2. ZO.

16. AGE 962/2018, martxoaren 23koa, 3. ZO.

17. AGE 114/2016, martxoaren 1ekoa, 5. ZO.

18. Arabako PAE 763/2018, abenduaren 18koa, 4. ZO.

4.2. Datu-babesari buruzko Espainiako egungo legedia: DPBEBLO (2018)

Denborak aurrera egin ahala, eta barne-legedia Europako 2016. urteko DBEOri egokitzeko helburuarekin, datu-babesari buruzko lege berria egin zuen Espainiak: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (DPBEBLO). Lege berriaren edukia honakoa dugu: laurogeita hamazazpi artikulua (hamar tituluk barne biltzen dituztenak), hogeita bi xedapen gehigarri, sei xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bakarra eta hamasei azkeneko xedapen.

Lege berriaren helburua nagusia 1999ko IPDBLO berritzea eta Espainiako barne-ordenamendua DBEOra egokitzea da; eztabaida parlamentarioan, gainera, eskubide digitalak bermatzea ere jaso zen helburutzat. Lege berriari, haatik, honako ohar hauek egin behar zaizkio:

- a) 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa indargabetu du¹⁹;
- b) 5/2018 Errege Lege Dekretua, uztailaren 27koa, ere utzi du indarge (datu-babesari buruz *in extremis* egindako araua)²⁰;
- c) 1999ko IPDBLOren 23. eta 24. artikulua indarrean mantendu ditu, harik eta berriaz indargabetzen ez diren arte²¹;
- d) 1999ko IPDBLOren 22. artikulua indarrean mantendu du izaera iragankorraz²².

IPDBLOren 22. artikulua indarrean jarraitzearen arrazoia zera da: zigor- eta epai-eremuan datuak babesteko oinarrizko araua 2016/680 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, apirilaren 27koa, da, baina Espainiak ez du oraindik horren transposizioa egin, eta EBren zehapena ere jaso du hori dela eta²³. Hala, Espainiak 2016/680 (EB) Zuzentaruaren transposizioa egingo duen legea behin

19. DPBEBLO, xedapen indargabetzaile bakarra.

20. Izen osoa: Real Decreto-ley 5/2018, de 27 de julio, de medidas urgentes para la adaptación del Derecho español a la normativa de la Unión Europea en materia de protección de datos. Arau honek ez zuen 1999. urteko IPDBLO indargabetu, bakarrik horren artikulua batzuz. EBk 2016. urtean DBEO onartu zuenetik Espainiak bere barne-ordenamendua horretara egokitzen ez zuenez, arau hau egin zuen presaka eta horrek IPDBLO eta Errege Lege Dekretu honen arteko legedi-marko bat ezartzen zuen, eguneko DPBEBLOk indarge utzi duen markoa, zati handi batean, behintzat.

21. DPBEBLO, xedapen gehigarri hamalagarrena: «[...] los artículos 23 y 24 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, siguen vigentes en tanto no sean expresamente modificadas, sustituidas o derogadas».

22. DPBEBLO, xedapen iragankor laugarrena: «Los tratamientos sometidos a la Directiva (UE) 2016/680 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, [...] continuarán rigiéndose por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, y en particular el artículo 22, y sus disposiciones de desarrollo, en tanto no entre en vigor la norma que trasponga al Derecho español lo dispuesto en la citada directiva».

23. 2016/680 (EB) Zuzentaruak jasotako transposizio-eparean azken eguna 2018ko maiatzaren 6a zen, baina Espainiak ez zuen hura epez egin. Horrela, EBk Espainia EBJAren aurrera eraman zuen. Ik. Brusela, 25-07-2019: «Protección de datos: La Comisión decide llevar a Grecia y España ante el Tribunal por no transponer el Derecho de la UE», <https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/IP_19_4261>.

onartuta, IPDBLOren 22. artikulua indarrean egoteari utziko dio. Ez dugu ahaztu behar, halere, «zuzentzauren eragin zuzenaren printzipioa»²⁴.

Bestalde, 23. eta 24. artikuluei dagokienez, izaera berezidunak diren heinean, berariazko indargabetzea egiten ez den arte jarraituko dute indarrean, araugai bereko araua onartzen ez den bitartean.

Gaur egun, beraz, Espainia mailan datuei buruzko bi arau izango ditugu indarrean: 2018. urteko DPBEBLO eta 1999. urteko IPDBLO (22., 23. eta 24. artikulua); kontuan hartuta, bestalde, esparruz esparruko legediak edo legedi sektorialak ere datu-babesari buruzko arauak jasotzen dituela²⁵. Aipatzekoa da, halaber, erregelamenduek irismen orokorra dutela eta nahitaez bete behar direla²⁶; lege berriak, beraz, ez du erregelamendua «barnertzen», erregelamendua Espainiako Zuzenbideari egokitu baizik. Hori dela eta, DPBEBLOn arauketa falta sumatzen dugu eremu batzuetan, DBEO zuzenean delako ezgarri (definizioak, datuen titularren eskubideak...).

2. taula. 3/2018 Lege Organikoaren, abenduaren 5ekoaren, araugai zehatz batzuk.

Araugaia	Kokapena legean
Printzipioak	<i>II. Titulua</i>
Interesdunaren eskubideak	<i>III. Titulua</i>
Tratamenduaren arduraduna	<i>V. Titulua</i>
Tratamendu-eragilea	<i>V. Titulua, I. eta II. Kap.</i>
Datu-babesaren ordezkaria	<i>V. Titulua, III. Kap.</i>
Datuak Babesteko Agintaritzak	<i>VII. Titulua</i>
DBEA	<i>VII. Titulua, I. Kap.</i>
Zehapen-araubidea	<i>IX. Titulua</i>
Arau-haustekak	<i>71., 72., 73. eta 74. art.</i>
Eskubide digitalak	<i>X. Titulua</i>

Iturria: autoreak berak eginda.

24. «Zuzentzauren eragin zuzenaren printzipio»aren arabera, EBko estatu kide batek zuzentzauren bat dagokion epea baino lehen transposatu ez badu, zuzentzaure horrek zuzeneko eragina izango du haren xedapenak baldintzarik gabekoak eta behar bezain argiak eta zehatzak badira; hala ere, eragin hori bertikala izango da, herritarrek dagokion estatuaren aurrean gauzatu ahal izango dute. Hori guztia partikularren eskubideak babesteko helburuarekin.

25. ientearren autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen oinarritzko legea, osasun-arloan; 14/2007 Legea, uztailaren 3koa, Biomedikuntzako Ikerkuntzari buruzkoa, biomedikuntzako ikerketa-arloan; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, adingabeen babes juridikoari eta Kode Zibila eta Auzipetze Zibileko Legea aldatzeari buruzkoa, adingabeen babesaren arloan; 4/1997 Lege Organikoa, abuztuaren 4koa, Segurtasun Indar eta Kidegoek leku publikoetan bideo-kamerak erabiltzea arautzen duena, bideozaintza-arloan; 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren. Legearen testu bategina onartzen duena, lan arloan; 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenarena, aseguru-arloan; etab.

²⁶ EBFT 288. art.

Halaber, legearen azken atalak eskubide digitalen bermea jaso du; EKren 18.4. artikuluan jatorria duten eskubideak (dirudienez). Horien artean, besteak beste:

- Interneten neutraltasunerako eskubidea (80. art.)
- Interneterako sarbide unibertsaleko eskubidea (81. art.)
- Segurtasun digitalerako eskubidea (82. art.)
- Hezkuntza digitalerako eskubidea (83. art.)
- Lan-eremuan deskonexio digitalerako eskubidea (88. art.)
- Testamentu digitalerako eskubidea (96. art.)

4.3. Datuak babesteko bulegoak: DBEA, DBEB, DBKA eta DBMEA

Datu-babesari buruzko legedi eta araudi honek guztiak, bestalde, betearazpen, jarraipen eta kontrola behar du eta, horretarako, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia²⁷ (DBEA)²⁸ edukiko dugu Espainia mailan, 1992. urteko IPDTALOk sortu zuena²⁹, erakunde autonomoa, izaera publikoko entitate, zuzenbide publikoaz araututakoa³⁰, bere estatutua duena³¹. Erakunde horrek datu-babesari buruzko jarraipena egin eta, horren zehapen-ahalmenaren egikaritzan, datuen babeserako legedi edo araudia urratzeagatiko zehapenak ezartzen ditu.

Era berean, autonomia-erkidego batzuek ere badituzte datuak babesteko bulegoak:

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB), EAEn,
- Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak / *Autoritat Catalana de Protecció de Dades* (DBKA), Katalunian, eta
- Datuak Babesteko Madrilgo Erkidegoko Agentzia / *Agencia de Protección de Datos de la Comunidad de Madrid* (DBMEA), Madrilgo Erkidegoan, azken hori 2013. urtera arte.

DBEBk, DBKak eta DBMEAk (2013. urtera arte) zera kontrolatzen dute: dagokien administrazio autonomiko barruan dauden erakunde guztiek (autonomiko, foral, tokiko, autonomo, baltzu publiko, etab.) sortzen eta mantentzen dituzten jabetza publikoko fitxategiek barne dauzkaten izaera pertsonaleko datuen tratamenduak datu-babesari buruzko araudi eta legediak ezartzen duena betetzen ote duen, zehapen-ahalmena edukiz.

Bulegoen eskumen-eremuari dagokionez, azkenik, autonomia-erkidegoen bulegoek eremu autonomiko publikoan dute eskumena, ez pribatuan; eremu pribatuan DBEak du eskumena Espainia osoan.

27. Izen ofiziala: *Agencia Española de Protección de Datos, Autoridad Administrativa Independiente*.

28. DPBEBLO 44.1. art.

29. IPDTALO 34. art. eta hur.

30. ik. APAPEL 84. eta 88. eta hur. art. (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

31. 428/1993 Errege Dekretua, martxoaren 26koa, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Estatutua onartzen duena.

3. taula. Datuak babesteko bulegoen eskumen-eremua.

Eskumen-taula	Eremu publikoan	Eremu pribatua
Espainia maila	DBEA	DBEA
AAEE maila	DBEB, DBKA, DBMEA	DBEA

Iturria: autoreak berak eginda.

4.4. Datu-babesari buruzko egungo araudi ezargarria

Europa mailako, Europar Batasuneko eta Espainiako araudi eta legediaren sorrera, garapena eta egungo egoera zein den ikusita, datu-babesari buruzko egungo araudi ezargarria honako taula honetan ikus dezakegu, dagokion lurralde-eremua, araua, arauaren eremu materiala eta arauaren zer atal dagoen indarrean kontuan hartuz:

4. taula. Datu-babesari buruzko egungo araudi ezargarria.

Lurralde-eremua	Araua	Eremu materiala	Atala
Europa (Europako Kontseilua)	108.+ Hitzarmena	Orokorra	Osorik
EB	EBFT	Orokorra	16. artikulua
EB	EBOEG	Orokorra	8. artikulua
EB	95/46/CE Zuzentaraua	Orokorra	Printzipio moduan, zuzenbide-lotespenik ez*
EB	DBEO	Orokorra	Osorik
EB	DPBZAE <i>bis</i>	EBko erakunde eta norbanakoen arteko harremanak	Osorik
EB	EBko esparruz esparruko araudia	Dagokion esparrua	Osorik
Espainia	EK	Orokorra	18.4. artikulua
Espainia	IPDBLO	Orokorra	22., 23. eta 24. artikuluak
Espainia	DPBEDBLO	Orokorra	Osorik
Espainia	Esparruz esparruko legediak edo legedi sektorialak	Dagokion esparrua (medikuntza, biomedikuntza, auzipetzea, SIK...)	Osorik

*. Batzuetan ikusiko dugu nola EBJAk 95/46/EE Zuzentarauari erreferentzia egingo dion DBEOren xedapenen baten zentzua aurkitzeko edo hura interpretatzeko orduan.

Iturria: autoreak berak eginda.

5. Datu-babesa Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian³²

Ikusi bezala, datu-babesak garapen handia izan du lege- eta arau-arloan, Espainia zein EBn; aurrerakuntza eta berrikuntza teknologikoek bultzatuta, batik bat.

Esan bezala, informatika aurreikusi zuen EK-k eta, beraz, intimitate-eskubidea jasotzeaz aparte (EK 18.1. art.), teknologia eta intimitateari buruzko artikulua zehatz bat jaso zuen: EKren 18.4. artikulua.

Hala, Konstituzio Auzitegiak lan mardula eduki du datu-babesaren eremuan: EKren 18.4. artikulua interpretazio zabala edo estentsiboa egin behar izan du emandako ebazpenetan zehar, datu-babesa artikulua horrek aintzatesten duela adierazteko. Izan ere, aipatu moduan, artikulua idazkerak berak ez dio datu-babesari erreferentziarik egiten, eta, beraz, KAK berrinterpretazio-lana egin behar izan zuen.

5.1. Datu-babesa EKn

1993. urtean, «askatasun informatiko» adiera barneratu zuen KAK, eta EK-k konstituzio-berme berri bat barneratu zuela adierazi, pertsonaren duintasunean (EK 10.1. art.), EKren 18.4. artikuluaekin harremanetan, oinarria duen oinarrizko eskubide edo askatasun autonomoa den babes-instituzio berri bat³³; hurrengo urtean, 1994an, KA pribatutasunaz hitz egiten hasi zen —lege-eremuari dagokionez, IPDTALO pribatutasunaz ari zen dagoeneko, horren zioen adierazpenean³⁴—.

Gauzak horrela, 1998. urterako KAK, «RENFE auziari» buruz emandako ebazpen guztietan, argi utzi zuen EKren 18.4. artikulua oinarrizko eskubide berria jasotzen zuela, intimitate-eskubidetik guztiz autonomoa den eskubidea³⁵. Auzitegiak bere doktrina osatzen jarraitu zuen, eta adierazi zuen askatasun informatikoak eta datuen babeserako eskubideak «teknologia informatikoaren erabilera makurraren aurrean herritarren eskubideak babesteko tresna espezifiko bat ez ezik, pertsona bakoitzari dagozkion informazioen fluxua kontrolatzeko oinarrizko eskubide autonomo bat ere aintzatesten du, intimitatearekin lotura hertsia izan edo ez, bere eskubideen erabateko egikaritza babesteko»³⁶.

32. Atal honetan sakontzeko: Polo, 2020a.

33. KAE 254/1993, uztailaren 20koa, 6. ZO.

34. «El progresivo desarrollo de las técnicas de recolección y almacenamiento de datos y de acceso a los mismos ha expuesto a la privacidad, [...] se habla de la privacidad y no de la intimidad: aquélla es más amplia que ésta, pues en tanto la intimidad protege la esfera en que se desarrollan las facetas más singularmente reservadas de la vida de la persona [...], la privacidad constituye un conjunto, más amplio, más global, de facetas de su personalidad que, aisladamente consideradas, pueden carecer de significación intrínseca pero que, coherentemente enlazadas entre sí, arrojan como precipitado un retrato de la personalidad del individuo que éste tiene derecho a mantener reservado» IPDTALO, Zioen Adierazpena.

35. KAAE 11/1998, urtarrilaren 13koa, 4. eta 5. ZO; 33/1998, otsailaren 11koa; 35/1998, otsailaren 11koa; 45/1998, otsailaren 24koa; 60/1998, otsailaren 16koa; 77/1998, martxoaren 31koa; 94/1998, maiatzaren 4koa; 104/1998, maiatzaren 18koa; 105/1998, maiatzaren 18koa; 106/1998, maiatzaren 18koa; 123/1998, ekainaren 15koa; 124/1998, ekainaren 15koa; 126/1998, ekainaren 15koa; 158/1998, uztailaren 13koa; 198/1998, urriaren 13koa; 223/1998, azaroaren 24koa; 30/1999, martxoaren 8koa; 44/1999, martxoaren 22koa, y 45/1999, martxoaren 22koa.

36. KAAE 11/1998, urtarrilaren 13koa, 5. ZO, eta 94/1998, maiatzaren 4koa, 4. ZO.

KAren hitzetan, datu-babesaz hitz egiten dugunean intimitateetik at kokatzen gara, datuen babeserako eskubideak datu intimoak babesteko eskubideaz aparte, intimoak ez direnak ere babesten dituelako, bestela intimitate edo bizitza pribatuarekiko harreman hertsia duten datuak bakarrik geratuko lirakeelako datuak babesteko eskubidearen babespean, eta intimitate edo bizitza pribatuarekin harremanik ez duten beste datu batzuk, ordea, ez³⁷. Eskubide honek, gainera, intimitate-eskubideak ez bezala, ahalmen zehatz batzuk ematen dizkio haren titularrari, zeinek ahalmen juridikoa dakarten hirugarrenei legeak jasotako portaera zehatz batzuk egiteko edo ez egitea galdatzeko³⁸.

Intimitate-eskubidearen eta datuen babeserako eskubidearen arteko ezberdintasunik garrantzitsuenetariko bat, beraz, honakoa da: intimitate-eskubidea (EK 18.1. art.), *abstentzio-eskubidetzat* jaso du konstituziogileak; hau da, Estatuak edo botere publikoek norbanakoen intimitateari lotutako kontuetan ez sartzeko betebeharra dute (abstentzioa). Datuen babeserako eskubidea (EK 18.4. art.), ordea, *prestazio-eskubide* moduan egituratu da: pertsona bakoitzak bere datuen gaineko ahalmena eduki dezan horiek babesteko eta kontrolatzeko tresnak eman behar dizkio Estatuak titularrari³⁹, erantzuleei karga zehatzak ezarriz eta, dagokion kasuetan, karga horiek ez betetzeagatiko zigorrak. Estatuaren jarrera, azken kasu horretan, aktiboa da (jarduera aktiboa), informazioa oso azkar transmititu daitekeelako, batez ere. Estatuari betebeharrak positiboak ezartzen dizkion eskubide mota da, beraz, hori bermatzeko neurriak hartu beharko ditu Estatuak⁴⁰.

Alabaina, oinarrizko eskubide autonomoa izanagatik ere, ezingo dugu intimitate-eskubideaz guztiz banandu (EKren 18.1. art.), horregatik 18. artikulua barneratu du. Babestu nahi dena pertsona bat identifikatzen duten edo identifika dezaketen datuak dira, baina horrek nortasunaren eta bizitza pribatuaren gain dauka eragin zuzena, datuez haratago joatean pertsona bati buruz arituko ginakeelako, ez datu soil batez. Hau da, modu isolatu batean, informazio hori ez dago intimitate-eremuari loturik, zentzu hertsian, baina pertsona batekin harremanetan jartzean, intimitatea sartuko litzateke jokoan. Hala, oinarrizko eskubide horien bien arteko lotura argia da⁴¹.

KAk «datuen babeserako eskubideaz» edo «izaera pertsonaleko datuak babesteko eskubideaz» hitz egiten jarraitu du, EKren 18.4. artikulua jasotzen duen eskubidea⁴², eta baita «askatasun informatikoaz» (1993. urtean lehendabizi erabilitako adiera), adieraziz «programa informatiko batean sartutako datu berberen erabilera kontrolatzeko eskubidea dela (*habeas data*), eta, besteak beste, herritarrek datu pertsonal jakin batzuk datu horiek lortzea justifikatu zuen helburu legitimoa

37. KAE 292/2000, azaroaren 30ekoa, 5. ZO.

38. KAE 292/2000, azaroaren 30ekoa, 5. ZO.

39. KAK 292/2000 epaian (5. ZO) adierazi zuena dugu hauxe: datuen babeserako oinarrizko eskubideak horien titularrari ematen dizkion ahalmen multzoa, horren arauketa legeak ezarri behar duena.

40. GEEAE (*Fifth Section*), 2010eko irailaren 23koa, Schüth v. Alemania, 55. at.

41. Horren adibide argia ditugu lokalizazio-datuak, besteak beste, datuen babeserako eskubidea urratzeaz aparte, intimitate-eskubidea ere urratzen dute, datu horren bidez pertsona non dagoen jakin dezakegu. *Cfr.* Polo, 2020b.

42. KAE 96/2012, maiatzaren 7koa, 6. ZO.

ez den beste helburu batzuetarako erabiltzearen aurka egitea hartzen duela barnean»⁴³. Auzitegiaren aburuz, «oinarrizko eskubide honen helburua da pertsonari bere datuen erabileraren eta xedearren gaineko xedatze-boterea bermatzea, norbanakoaren duintasun eta eskubidea kaltetzen duen horien trafiko ez-zilegia ekiditeko, gizabanakoei datu horien gaineko xedatze-boterea bermatuz»⁴⁴. Hor daukagu oinarrizko eskubidearen muina: norbanakoei beren datuen erabileraren eta helburuen gaineko xedapen-ahalmena bermatzea; hots, herritarrek datuen gaineko kontrola edukitzea.

5.2. Izaera bikoizduna

Auzitegiak, bestalde, izaera bikoitza eman dio EKren 18.4. artikuluko eskubide honi. Horren arabera, oinarrizko eskubide honek ez du norbanako bakoitzak bere informazioa kontrolatzea helburu duen oinarrizko eskubide autonomo bat soilik barneratzen⁴⁵, «baizik eta, bere azken tartekitik ondorioztatzen den bezala (“bere eskubideen egikaritzea osoa bermatzeko”), beste oinarrizko eskubide batzuk babesteko eskubide instrumental bat, hau da, intimitate- eta ohore-eskubideak eta herritarren gainerako eskubideen gozamen osoa bermatzeko erakunde juridiko bat»⁴⁶.

Horren adibide ditugu aipatutako «RENFE auziko» epaiak, besteak beste, non EKren 18.4. artikuluko oinarrizko eskubidearen izaera instrumentala aintzatetsi baitzen askatasun sindikala bermatzeko helburuarekin⁴⁷, edo askatasun ideologikoarekin harremanetan⁴⁸.

Azkenik, EKren 18.4. artikulua idazkera zalantzan jarri du doktrinak. Autore batzuen iritziz, EK-k, berez, ez du datu-babesaren aipamenik egiten (Aberasturi eta Cubero, 2008: 178), eta, beste batzuen iritziz, EKren 18.4. artikulua idazkerak ez du eskubide autonomo berri bat hain argi aintzatesten (Serrano, 2005: 251), horren hitzez hitzez idazkeran legeak informatikaren erabilera mugatzeko agindu soila aurkitzen dugulako, besterik gabe. Autore batzuen aburuz, gainera, oinarrizko eskubide honen oinarria ez dugu EKren 18.4. artikuluan soilik aurkituko, pertsonaren

43. KAE 96/2012, maiatzaren 7koa, 6. ZO.

44. KAE 17/2013, urtarrilaren 30ekoa, 4. ZO.

45. KAE 11/1998, urtarrilaren 13koa, 5. ZO; 96/2012, maiatzaren 7koa, 6. ZO, eta 151/2014, irailaren 25ekoa, 7. ZO.

46. KAE 76/2019, maiatzaren 22koa, 5. ZO.

47. KAE 11/1998, urtarrilaren 13koa, 5. ZO; 60/1998, martxoaren 16koa, 1. ZO; 124/1998, ekainaren 15ekoa, 2. ZO; eta 126/1998, ekainaren 15ekoa, 2. ZO.

48. Ikus: KAE 76/2019, maiatzaren 22koa, 5. ZO: «El artículo 18.4 CE no solo “consagra un derecho fundamental autónomo a controlar el flujo de informaciones que conciernen a cada persona”, sino también, como se desprende de su último inciso (“para garantizar [...] el pleno ejercicio de sus derechos”), un derecho instrumental ordenado a la protección de otros derechos fundamentales, esto es, “un instituto de garantía de los derechos a la intimidad y al honor y del pleno disfrute de los restantes derechos de los ciudadanos”». Kasu zehatz honetan, Konstituzio Auzitegiak aho batez debekatu zuen alderdiek gure Interneten emandako gure iritzi politikoak jasotzea eta erabiltzea. Auzitegiak baietsi egin zuen Herri Defendatzaileak aurkeztutako errekurtoa, eta Konstituzioaren aurkakotzat eta deuseztat jo zuen Hauteskunde Legearen 58 bis artikulua, zeinak aukera ematen alderdiei herritarren iritzi politikoei buruzko datu pertsonalak biltzeko, hauteskunde-xedez. Horrela, debekatu egin zen alderdi politikoek gure iritziak arakatu ahal izatea, eta hauteskundeetako «spam» a bidaltzeko erabiltzea.

duintasunean ere (EK-ko 10.1. art.) (Rebollo eta Serrano, 2018: 65), KAK 1993. urtean honi buruzko lehendabiziko epai batean adierazi zuen moduan⁴⁹.

6. Datuen babeserako eskubidea egungo arau- eta lege-marko berrian: adostasuna eta ARSLOP eskubideak

Aipatu bezala, datuen babeserako oinarrizko eskubideak (EK 18.4. art.) horren titularrari legeak ezarri beharreko ahalmen batzuk ematen dizkio⁵⁰, oinarrizko eskubidearen eraginkortasuna ziurtatzeko Estatuak bermatu beharko dituen ahalmen batzuk. Oinarrizko eskubide honen edukiaren parte diren ahalmen horien isla bi eremutan aurkituko dugu, batik bat: datuen titularrak beti aurretiaz eman behar duen adostasunean, eta, beste alde batetik, datu horien jabeak egikari ditzakeen ARSLOP eskubideetan; bi eremu horiek gure datu pertsonalen gaineko kontrolaren adiera nagusia dira, oinarri-oinarrian izango ditugunak.

6.1. Interesdunaren eskubideak: ARCO eskubideetatik, ARSLOP eskubideetara

DBEOK eskubideak eta horien edukia jaso ditu eta DPBEBLOK eskubide horien ezaugarriak eta gauzatzeko era osatu ditu. Eskubide hauek, interesdunaren adostasunarekin batera, datu-babesaren araudiaren edukia dira, eta eskubideok, bestalde, txit pertsonalak dira (*personalísimos*) (Rebollo eta Serrano, 2018: 183); hau da, horien egikaritzea interesdunak berak egin beharko du, ez beste norbaitek (salbuespen birekin: ordezkaritzea legal edo ezgaitasun kasuak).

Lau eskubide ziren lehen: sarbide-eskubidea, zuzentze-eskubidea, ezeztapen-eskubidea eta aurkaritze-eskubidea («ARCO eskubideak»: *acceso, rectificación, cancelación, oposición*, gazteleraz; *access, rectification, cancellation, opposition*, ARCO, ingelesez). Egun, sei dira: sarbide-eskubidea, zuzentze-eskubidea, ezabatze-eskubidea, mugatze-eskubidea, aurkaritze-eskubidea eta eramangarritasunerako eskubidea («ARSLOP eskubideak»: *acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición, portabilidad*, gazteleraz; *access, rectification, erasure, restriction, portability, object*, AREPO, ingelesez).

6.1.1. Sarbide-eskubidea / Right of access (DBEO 15. art. eta DPBEBLO 13. art.)

Interesdunak bere datuei buruzko informazio guztira sarbidea izateko eskubidea dauka; ez da datu zehatz batzuetara mugatzen, datu guzti-guztietara sarbide izateko eskubidea du interesdunak. Sarbide-eskubideak ahalbidetzen du interesdunak egiaztatzea norbaitek nonbaiten bere daturik daukan (Lucas, 1990: 187).

DPBEBLOren arabera, sarbide-eskubide hori gauzatuko da tratamenduaren arduradunak datu eta informazio guztira sarbide ematen duen «urrutiko sarbide-sistema zuzen eta seguru» bat ematen duenean (DPBEBLO 13.2. art.).

49. KAE 254/1993, uztailaren 20koa, 6. ZO.

50. KAE 292/2000, azaroaren 30ekoa, 5. ZO.

DPBEDBLOk ezarri du, bestalde, sarbide-eskubidearen egikaritza kobratu edo ezertatu ahalko duela tratamenduaren arduradunak, eskubidearen egikaritza «errepikakorra» denean (DPBEDBLO 12.5. art.), horretarako arrazoi legitimorik egon gabe; DPBEDBLOk hori osatu du: egikaritza «errepikakor»tzat hartuko dela 6 hileko epe baten barruan behin baino gehiagotan gauzatzen denean adieraziz (DPBEDBLO 13.3. art.).

DPBEDBLOk, azkenik, 1999ko IPDBLOk jasotzen zuen hilabeteko epea kendu du (IPDBLO 29.1. art.); egun, tratamenduaren arduradunak eskaera egiten denetik ez du hori ebazteko muga-eperik. Sarbideak hirugarrenei egindako datuei buruzko komunikazioak eta lagapena egin duenaren nortasuna jakiteko eskubidea ere ematen dio interesdunari (Lucas, 1993: 75).

Egile batzuen arabera sarbide-eskubidea da datuen babeserako eskubidea osatzen duten eskubideetatik garrantzitsuena (Arenas, 2010: 1.161).

6.1.2. Zuzentze-eskubidea / *Right to rectification* (DBEO 16. art. eta DPBEDBLO 14. art.)

DBEOk oso modu zabalean arautu du eskubidea hau, eta DPBEDBLOk mugatu. Tratamenduaren arduradunak interesdunari buruz dituen eta zuzenak ez diren datuak zuzentzeko eskubidea da, bidegabeko luzapenik gabe (DBEO 16. art.).

DPBEDBLOri jarraiki, kaltetuak eskaeran jaso beharko ditu zer daturi egiten dien erreferentzia eta zein den egin beharreko zuzenketa, eta, beharrezkoa denean, datuak okerrak edo osatugabeak direlako dokumentazioa atxiki beharko du. Hau da, datuaren zehaztasun falta edo gabezia zuzentze-eskubideaz konponduko da eta legea urratzea edo egokiak ez diren edo gehiegizkoak diren datuak egotea ezabatze-eskubidearekin konponduko dira (aurretiazko ezeztapen-eskubidea) (Herran, 1999: 197; Freixas, 2001: 197).

6.1.3. Ezabatze-eskubidea / *Right to erasure* (DBEO 17. art. eta DPBEDBLO 15. art.)

Eskubide hau «ahaztua izateko eskubidearekin»⁵¹ (*derecho al olvido*, gaztelaniaz; *right to be forgotten*, ingelesez) jarri behar dugu harremanetan⁵². Izan ere, eskubide horri buruz jurisprudentziak eraikitako egitura ezabatze-eskubidearen oinarri izan baita.

Ezabatze-eskubideak interesdunari fitxategian egon behar ez duten datuak ezabatzeko ahalmena ematen dio (Lucas, 1993: 79).

Tratamenduaren arduradunak interesdunari buruz dituen datuak ezabatzeko interesdunak duen eskubidea da, bidegabeko luzapenik gabe (17.1. art.), eta

51. Sakontzeko, ikus: Aberasturi, 2014.

52. Aberasturi Gorriñok «ahaztua izateko eskubidea» adiera egokiagoa dela azpimarratzen du, interesdunak, informazioaren titularrak, eskubidea baitauka hirugarrenek berari buruzko datuak bilatu eta erabiltzeko dituzten aukerak mugatzeko eta hirugarren pertsona horien aurrean «ahaztua izateko eskubidea». Zentzu horretan, beraz, «ahazteko eskubidea» barik, «ahaztua izateko eskubidea», gaztelaniaz «*derecho a ser olvidado*» eta ingelesez «*The right to be forgotten*» erabiltzen diren legez (Aberasturi, 2014: 13).

arduradun hori ezabatzer behartuta egongo da horretarako honako inguruabar bat ematen denean: datuak jaso ziren helbururako beharrezkoak ez izatea, interesdunak adostasuna erretiratzen badu, interesduna tratamenduaren aurka badago, datuak modu ez-legezkoan tratatu direnean, araudiren batek ezartzen duen beharkizun legal batek hala eskatzen duenean edo datuak lortu direnean informazio-gizartearen zerbitzuen eskaintzarekin harremanetan.

Ezabatze-eskubidea aurkaritza-eskubidetik eratorzen denean, tratamendu-arduradunak kaltetuaren datu indentifikagarriak gorde ahalko ditu etorkizunean marketin zuzenerako tratamendua ekiditeko (DPBEDBLO 15.2. art.).

6.1.4. Mugatze-eskubidea / Right to restriction (DBEO 18. art. eta DPBEDBLO 16. art.)

Tratamenduaren mugapenerako eskubideak honakoa esan nahi du: datuak bakarrik ahalko dira tratatu interesdunaren esanbidezko adostasunarekin (DPBEDBLO 18.2. art.).

Interesdunak mugapenerako eskubide hori izango du kausa hauek gertatzen direnean: datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratzen duenean, horien zehaztasuna egiaztatzen den epearen barruan; tratamendua ez-legezkoa denean eta interesdunak datuen tratamenduaren mugapena eskatzen duenean (datuen ezabatzea eskatu orde); tratamenduaren arduradunak tratamenduaren helbururako datuak behar ez dituenen, baina interesdunak erreklamazioak egiteko behar dituenen, edo interesduna tratamenduaren aurka dagoenean, arduradunaren arrazoiak interesdunarenei gailentzen zaizkiela egiaztatzen den bitartean (DBEO 18.1. art.).

6.1.5. Aurkaritza-eskubidea / Right to object (DBEO 21. art. eta DPBEDBLO 18. art.)

Bere datu pertsonalak tratatzearen aurka egiteko interesdunak duen eskubidea dugu aurkaritza-eskubidea (Sánchez, 1998: 97). Erregelamenduak interesdunari aurkaritza-eskubide kasik absolutua ematen dio, salbuespen gutxirekin eta modu erraz eta doakoan.

Interesdunak edozein mementotan aurkaratu ahalko du datuen tratamendua, eta tratamenduaren arduradunak datu horiek tratatzeari utzi beharko dio, salbu interesdunaren interes, eskubide eta askatasunei gailentzen zaizkien arrazoi legitimoak baldin badaude (DBEO 21.1. art.).

6.1.6. Eramangarritasunerako eskubidea / Right to data portability (DBEO 20. art. eta DPBEDBLO 17. art.)

Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradun bati emandako datu guztiak jasotzeko, formatu estrukturatu batean, erabilera komunekoa eta irakurketa mekanikokoa, eta tratamenduaren beste arduradun bati emateko eskubidea aurreko arduradunak ekidin ezinik (DBEO 20.1. art.). Hau da, interesdunak eskubide dauka bere datuak jasotzeko eta beste toki batera eramateko.

6.2. Interesdunaren adostasuna⁵³

Adostasuna, interesdunaren eskubideekin batera, datu-babesaren eta datuen tratamenduaren muina da eta eskubidearen funtsezko edukiaren parte, eta, hala, 2016ko DBEO n adostasuna eta interesdunaren eskubideak erregelamenduaren oinarritzko eduki dira; horrela jaso du DBEOk⁵⁴. Datu pertsonalen tratamenduaren legezkotasunaren sei oinarrietako bat izango dugu adostasuna⁵⁵.

Adostasunaz ari garenean, honela definitu du DBEOk⁵⁶: «Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena»⁵⁷.

29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldeak (29LT) —egun, Datuak Babesteko Europako Batzordea⁵⁸— DBEOk adostasunari buruz ematen duen adiera aztertu eta adostasunaren «aske», «zehatz», «informatu» eta «zalantzarik gabeko» adierak banan-banan osatu eta landu zituen⁵⁹. Hala, 29LTren arabera, honelaxe ulertu behar dugu adostasuna:

- a) «Aske» betekizunak interesdunek hautatze eta kontrol erreal bat edukitzeari egiten dio erreferentzia⁶⁰. Subjektua hautaketa egiteko benetan librea ez bada, bere adostasuna ematen behartua ikusten du bere burua edo hori ez emateak ondorio negatiboak ekarriko dizkiola usteko du, adostasuna baliogabea izango da, beraz⁶¹. DBEOk, horretarako, adostasuna modu librean eman den edo ez aztertzeke informazioa barne bildu du⁶² eta tratamenduaren arduradunak edukiko du horren frogaz-zama edo hori frogatu beharraren karga⁶³.

53. Atal honetan sakontzeko: Polo, 2020a.

54. DBEO 4.11. eta 7. art.

55. DBEO 6.1. art.

56. DBEO 4.11. art. eta DPBEBDLO 6.1. art.

57. DBEBk eginiko euskaratzea. Eskuragarri hemen: <https://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/es_def/adjuntos/RGPD-2016R0679_Articulado-es-eu.pdf> (azken bisita, 2020-03-14).

58. 95/46/CE Zuzentarauak, Europako Parlamentu eta Kontseiluarenak, urriaren 24koak, sortu zuen 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldea (29LT), zuzentarauaren 29. artikulua hain zuzen, horrek eman zion izena. Haatik, DBEOk Datuak Babesteko Europako Batzordea (*Comité Europeo de Protección de Datos*) sortu egin du (68.-76. art.), datu-babesaren eremuan 29LT ordezkatzeko duen erakundea eta bertan Datu Babeserako Europako Ikuskatzailea (*Supervisor Europeo de Protección de Datos*) ere barneratzen da.

59. 29LT. 2016/679 (EB) Erregelamenduak jasotako adostasunaren inguruko gidalerroak, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearena, 2017ko azaroaren 28an hartutakoak, 2018ko apirilaren 10ean berrikusi eta onartuak.

60. 9LT. 2016/679 (EB) Erregelamenduak jasotako adostasunaren inguruko gidalerroak, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearena, 2017ko azaroaren 28an hartutakoak, 2018ko apirilaren 10ean berrikusi eta onartuak, 6. or.

61. 29LT. 15/2011 Irizpena, adostasunaren definizioari buruzkoa, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearena, 2011ko uztailaren 13koa, 12. or.

62. DBEO 7.4. art. eta 43. zk. Kontuan hartuzkoa.

63. DBEO 7.1. art.

- b) «Zehatz» eskakizunarekin kontrol- eta gardentasun-maila bat bermatu nahi zaio interesdunari⁶⁴, helburu bakoitzerako hautaketa egiteko aukera emanez⁶⁵, erabileraren desbideratzearen aurkako bermea dena.
- c) «Informatu»az ari garenean, tratamenduaren gardentasun-printzipioarekin lotu behar dugu⁶⁶ eta interesdunaren adostasuna jaso aurretik, horri informazioa eman behar izatea galdatzen du betekizun honek (aurretiaz informatua), informatutako hautaketa egin ahal dezan⁶⁷. 29LTren arabera, adostasun balioduna lortzeko gutxiengo informazio hau eman beharko da⁶⁸: tratamenduaren arduradunaren nortasuna⁶⁹, tratamendu bakoitzaren helburua⁷⁰, jasoko eta erabiliko diren datu motak⁷¹, adostasuna erretiratzeko eskubidea⁷², erabaki automatizatuentzat diren datuen erabilerari buruzko informazioa⁷³ eta datuen igorpenetan egokitze eta berme egokien faltak eragin ditzakeen arriskuei buruzko informazioa⁷⁴.
- d) «Zalantzarik gabekoa» izatearen eskakizunak interesdunaren adierazpen edo baieztoko egintza argi bat eskatuko digu. Egintza edo adierazpena beti egon beharko da, beraz⁷⁵.

Umeen adostasunari dagokionez, bestalde, haien guraso edo tutoreek eman beharko dute eta egiaztagarria izan beharko du⁷⁶, 16 urteko adin-muga ezarritik (13 urteko adin-muga ezar dezakete estatu kideek barne-legediaren bidez). Hala, DBEOrekin, ezingo zaie 16 urtetik beherakoei informazioaren gizarteko zerbitzurik eskaini gurasoen edo legezko tutorearen baimenik gabe, salbu eta lege nazional batek adin txikiago bat ezartzen badu; adin hori 13 urtetik beherakoa ezin izango da izan, betiere.

64. 29LT. 2016/679 (EB) Erregelamenduak jasotako adostasunaren inguruko gidalerroak, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearenak, 2017ko azaroaren 28an hartutakoak, 2018ko apirilaren 10ean berrikusi eta onartuak, 12. or.

65. 29LT. 3/2013 Irizpena, helburuaren mugatzeari buruzkoa, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearena, 2013ko apirilaren 3koa.

66. DBEO 5.1. art.

67. 29LT. 2016/679 (EB) Erregelamenduak jasotako adostasunaren inguruko gidalerroak, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearenak, 2017ko azaroaren 28an hartutakoak, 2018ko apirilaren 10ean berrikusi eta onartuak, 14. or.

68. 29LT. 2016/679 (EB) Erregelamenduak jasotako adostasunaren inguruko gidalerroak, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearenak, 2017ko azaroaren 28an hartutakoak, 2018ko apirilaren 10ean berrikusi eta onartuak, 14. or.

69. DBEO 42. zk. Kontuan hartuzkoa.

70. *Ibidem*.

71. 29LT. 15/2011 Irizpena, adostasunaren definizioari buruzkoa, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearena, 2011ko uztailaren 13koa, 19. eta 20. or.

72. DBEO 7.3. art.

73. DBEO 22.2. art. eta 29LT. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren eraginetarako, erabaki individual automatizatuei eta profilak egiteari buruzko gidalerroak, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearenak, IV. atala, B hizkia, 20. or. eta hur.

74. DBEO 46. eta 49.1. art. eta 29LT. 15/2011 Irizpena, adostasunaren definizioari buruzkoa, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearena, 2011ko uztailaren 13koa, 19. or.

75. 29LT. 2016/679 (EB) Erregelamenduak jasotako adostasunaren inguruko gidalerroak, 29. Artikuluaren Datu Babesari buruzko Lan Taldearenak, 2017ko azaroaren 28an hartutakoak, 2018ko apirilaren 10ean berrikusi eta onartuak, 17. or.

76. DBEO 8. art.

7. Datu-babesari buruzko egungo araudiaren beste berritasun eta hobekuntza batzuk

7.1. Printzipio berriak

Datuen tratamenduari buruzko printzipio berriak ekarri ditu DBEOk. Horietako asko 95/46/CE Zuzentarauak zein 1999ko IPDBLOk jaso zituzten jada; egungo arauak, alabaina, printzipio berriak erantsi dizkie.

7.1.1. Gardentasun-printzipioa / Principle of transparency (DBEO 5.1.a. art.)

Printzipio honek erraztu egiten ditu tratamenduaren arduradunaren eta interesdunaren arteko harremanak, bai eta tratamenduaren arduradunaren eta kontrol-agintaritzen artekoak ere. Aldaketa garrantzitsua ekarri du, kontrol-agintaritzari datu pertsonalak dauzkaten fitxategiak jakinarazteko eta erregistratzeko betebeharra desagertu baita (DBEA, Espainian).

DBEOrekin «tratamendu-jardueren erregistroa» jaso da. Erregistro hori barrutik egingo da, eta, besteak beste, datu hauek jasoko ditu:

- Tratamenduaren arduradunaren izena eta harreman-datuak
- Datuak babesteko ordezkariaren izena eta datuak
- Tratamenduaren helburua
- Interesdunaren kategorien deskribapena
- Tratutako datu-kategorien deskribapena
- Datuen nazioarteko transferentziak

Gardentasunaren printzipioak eskatzen du publikoari edo interesdunari zuzendutako informazio oro laburra, eskuragarria eta ulerterraza izatea, bai eta hizkera argia eta erraza erabiltzea ere. Helburua da pertsonak informatzea eta jakitea zer gertatzen den ematen dituzten datuekin.

7.1.2. Xedea mugatzearen printzipioa / Purpose Limitation Principle (DBEO 5.1.b. art.)

Printzipio honek honakoa dauka oinarri-oinarrian: datu pertsonalak helburu jakin, esplizitu eta legitimoetarako bilduko dira, eta ez dira geroago helburu horiekin bateraezina den moduan tratatuko. Helburu esplizitu eta legitimo horiek datuak biltzeko unean zehaztu beharko dira.

7.1.3. Datuak minimizatzea / Data Minimisation (DBEO 5.1.c. art.)

Printzipio honek ezartzen du datu pertsonalak egokiak eta behar denera mugatuak izango direla, tratatzen diren helburuei dagokienez. Beraz, tratamenduaren helburu espezifiko bakoitzerako beharrezkoak diren datu pertsonalak bakarrik tratatuko direla bermatzen da.

7.2. Informazio-betebeharra

Informazio-betebeharra zabaldu egin du DBEOk. Aurreko araudiak ezartzen zuenez, interesdunen baimena jasotzerakoan, honako hauek jakinarazi behar zitzaizkien: fitxategiaren erantzulea nor zen, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatutako fitxategiak daudela, datu horiek biltzeko helburua zein den eta (lehengo) ARCO eskubideak baliatzeko aukera dutela.

DBEOrekin, alderdi berriei buruzko informazioa emateko betebeharra ezarri da:

- Datuak tratatzeko lege-oinarria zein den azaldu behar da.
- Kontserbazio-aldiari buruzko informazioa eman behar da.
- Erreklamazioak egiteko aukerari buruzko informazioa eman behar da.
- DBEOk barne bildu dituen gainerako eskubideen berri eman behar da (ARSLOP).

Horrela, datuak biltzeko prozesuetan txertatzen diren informazio-klausulek alderdi berri horiek guztiak jaso behar dituzte, DBEO betetzeko.

7.3. Datu Babeserako Ordezkarria (DBO) / *Data Protection Officer (DPO)*

Berritasunen artean, Datu Babeserako Ordezkariaren (DBO) figura dugu (DBEOren 37.-39. artikulua) —*Data Protection Officer (DPO)*, ingelesez; *Delegado de Protección de Datos (DPD)*, gaztelaniaz—, DBEOk sortu duena. Datu pertsonalen babesa irudikatzen duen figura da.

Datu Babeserako Ordezkarria datu-babesa irudikatzen duen figura da: funtsezko figura da erregelamendu berrian. Erakunde edo enpresa baten barruko kargua da, eta haren erantzukizuna da bermatzea dagokion erakunde edo enpresak behar bezala babesten dituela norbanakoen datu pertsonalak, indarrean dagoen legediari jarraiki; hala, haren eginkizun nagusiak tratamendu-eragiketen aholkularitza, ikuskapena eta prebentzioa dira, bai eta dagozkien auditoretzak ere. Egon daitezkeen arrisku guztiak identifikatu eta horiek konpontzeko bideak bilatzea ere izango da bere egitekoa.

Nahitaez egon behar du Datu Babeserako Ordezkarriak administrazio publiko guztietan, baita datu-tratamendua eskala handian duten erakundeetan ere. Halaber, erakundez barrukoa edo kanpokoa izan daiteke.

7.4. Datuen babesa diseinutik eta lehenetsita / *Privacy by design & by default*

Bestalde, DBEOk ezartzen duenez, proiektu orok (dela komertziala, dela web-orri bat sortzekoa, etab.) diseinuaren hasieratik bertatik eta lehenetsita (*Privacy by design & by default*) ebaluatu behar ditu bertan jasoko diren datu pertsonalek pribatutasunerako izan ditzaketan arriskuak (DBEO 25. art.).

Gainera, horiek ezabatzeko edo arintzeko beharrezko neurriak martxan jarri direla egiaztatu beharko da, eta, azkenik, datuen tratamenduak indarrean dagoen datuen babesari buruzko araudiarekin bat datoze la une oro. Edozein erakunderen, enpresaren edo profesionalen edozein proiektuk datuen tratamenduan duen eragina aztertzea du helburu.

Hori guztia, erabiltzailea bere datuen tratamenduetan gertatzen diren gehiegikerietatik babesteko prebentzio-neurri egokiak hartzeko, eta, horrela, datuok tratatzen dituzten enpresek araudia urratzea saihesteko.

7.5. Segurtasun-eskakizun zorrotzagoak

Enpresek eta erakundeek jarrera proaktiboa izan behar dute segurtasun-neurriak ezartzean, enpresaren azpiegiturak bezeroen edo erabiltzaileen datuak behar bezala tratatzen eta biltegitratzen dituela bermatzeko.

Hartu beharreko neurri nagusien artean honakoak ditugu:

- Enpresaren sistemarako edota datu-baseetarako sarbide seguruak ezartzea.
- Segurtasun-kopiak egiteko behar beste prozedura ezartzea.
- Neurri bereziak hartzea, datu-ihesak eta *malware*-instalazioa saihesteko, edo horri buruzko beste arrisku batzuk saihesteko edo prebenitzeko; hala nola *crackeren* erasoak, sistema informatikoen kalteak, etab.

Oro har, DBEOk, erantzukizun proaktiboaren printzipioaren arabera (DBEO 5.2. art.), tratamenduaren arduradunari eskatzen dio neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak aplika ditzala, tratamendua arauak ezarritakoarekin bat datorrela bermatzeko, eta hori frogatu ahal izateko.

Erregelamenduak, hortaz, eskatzen duena da enpresek datuen tratamenduarekiko jarrera kontzientea, arduratsua eta proaktiboa izatea, eta, hala badagokio, aplikatutako segurtasun-neurriak frogatu ahal izatea.

7.6. Datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazioa / *Data Protection Impact Assessment (DPIA)*

Tratamendu motaren batek (teknologia berriak erabiltzen baditu, batik bat), izaera, irismena, testuingurua edo helburuak direla-eta, arrisku handia ekar badiezaieke pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei, tratamenduko eragiketek datu pertsonalen babesean izan dezaketen eraginari buruzko ebaluazioa egingo du tratamenduaren arduradunak, tratamendua egin aurretik (DBEO 35.1. art.).

Hala, pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzat arrisku handia ekar dezaketen datu-tratamenduak egiten dituzten erakundeek datu-babesari buruzko eraginaren ebaluazioa egin beharko dute (*Data Protection Impact Assessment* edo *Privacy Impact Assessment*, ingelesez).

8. Datu-babesari buruzko araudia betetzea: *Data Compliance*

DBEOk eraiki duen egitura honekin guztiarekin bermatu nahi dena datu pertsonalen babesar da, eta, horretarako, honakoa izango da horren gakoa: *Data Compliancea* (datu-babesari buruzko araudia betetzea, euskaraz).

Data Complianceaz ari garenean, datuen babesaren arloko arau- eta erregelamendu-betekizunak betetzeari buruz ari gara. Datu pertsonalak antolatzean eta administratzean, erakundeek datu-babesari buruz indarrean dauden arauak betetzen dituztela bermatzea xede duen praktika da. Hau da, erakundeek (enpresa zein administrazio publikoek) informazio konfidentzial hori nolaz lortzen, biltegitratzen, tratatzen eta kudeatzen duten; izan ere, informazio pertsonalarekin lan egiten duten enpresek informazio pertsonal hori babesteko ardura dute.

Data Compliancea egiteko, honakoak hartu beharko dira kontuan:

- Datu-babesa urra dezaketen arriskuak aurreikusi, bai eta datu-babesaren segurtasun-neurriei buruzko azterketa egin.
- Erakundearen jardunari datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazio orokorra egin.
- Segurtasun-auditoriak.
- Ahultasun-analisia.
- Etab.

Eremu honetan, azkenik, beste figura batzuk ere agertuko zaizkigu; horien artean *Compliance Officera*, datu-babesari buruzko araudia betetzeaz arduratzen dena edo betetzearen arduraduna.

8. Ondorioak

Teknologia berriek datuen babeserako eskubidea eta horren araudi eta legedia modu etengabea garatzea eskatu dute, horiei aurre egin ahal izateko. Ikusi bezala, babes-maila naro ditugu: Europa, EB eta Espainia; eta horrek datu-babesaren eremuari eduki indartsua ematen dio.

Garapen handia eduki du EBk bere arau-ibilbidean zehar. 1981eko Hitzarmena oinarri hartuta, 95/46/CE Zuzentaraua egin, eta, ondoren, egungo DBEO. Azken arau horretan nabaritzen da, nabari ere, arau-eremuan egin den garapena; ez forma-kontuetan soilik, baizik eta araudi lodiago bat egin, figura berriekin, etab. Herritarren datuen babesar biziki babesteko borondatea duela erakutsi du EBk arau horrekin: badirudi «pribatutasunaren eta datu-babesaren Europa» esaldia ez dela aldarri hutsa izan.

Halaber, arau-ibilbide polita eduki du Espainiak datu-babesaren eremuan. Honek, EBren aldean, 1992an hasi zuen ibilbide hori, 1999an jarraitu (95/46/CE Zuzentarauak hala bultzatuta, hein handi batean), eta 2018an bukatu egungo araudiarekin (oraingoz, behintzat).

Europartu den eskubidea izanagatik, eta DBEOK osotasunean arautuagatik, DPBEBLO ez da atzean geratu: hainbat eremutan arau-egitura indartsua eraiki du. Halere, legeak jasotako alderdirik berritzaileena eskubide digitalak izan dira, zalantzarik gabe. Izan ere, eskubide digitalen aintzatespen argia egiten du DPBEBLOK, eta hori ezinbestekoa zaigu egun bizi dugun mundu teknologiko-digitalean.

Konstituzio Auzitegiari dagokionez, argia da teknologiak hala eskatuta egin izan duela bere garapena auzitegiak. Hasierako memento batean oinarrizko ezaugarri batzuez ari zen KA; urteek aurrera egin ahala, ordea, bere doktrina garatzen joan da. Ondorioztatu beharreko muina honakoa da: EKren 18.4. artikulua aintzatesten duela datu-babeserako eskubidea, eta horren helburua dela «pertsonek bere datuen erabileraren eta xedearen gaineko *xedatze-boterea* bermatzea, gizabanakoei datu horien gaineko *xedatze-boterea* bermatuz». Hori litzateke gakoa: datuen gaineko xedapen-ahalmena bermatzea; hots, herritarrek datuen gaineko kontrol zuzena eta eraginkorra edukitzea, ez «babes» soila.

Interesdunen esku jarri diren eskubideek zein adostasun-egituran gehituriko zehaztapenek norbanakoen datuak babesteko helburu argia dute: interesdunek euren eskubideak defendatzeko tresnarik ez balute, arau oro maila teoriko hutsean geldituko litzateke; beraz, interesdunei emandako babesak DBEOK jasotakoa eraginkor izan dadin bermatzea du xede (ARSLOP eskubideak).

DBEOK ekarritako berri guztiek datu-babesaren eremuan segurtasuna handitu nahi dute, gure datuak arriskuan egon daitezkeen mundu honetan. Datu Babeserako Ordezkarria, datuen babesa diseinutik eta lehenetsita, segurtasun-eskakizun zorrotzagoak, datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazioa, eta abar ezinbesteko tresnak izango dira datu pertsonalen aurkako erasoak ekiditeko, eta, hala, datu-babesari buruzko araudia betetzea (Data Compliance) oinarrizko betekizuna izango da.

Oro har, hainbat dira datu-babesa edukiz bete nahi duten arauak, dela Europa mailan, dela EB mailan, dela Espainia mailan. Teknologiaren aurrerakuntzak ekar ditzakeen arriskuak aurka borrokatzeko adinakoa den edo ez ikusteke dago oraindik, bai eta zenbat urteren buruan zaharkituta geratuko den; hori, halere, ikusi beharko dugu.

AGk modu bikainean esan bezala, gure datuen gaineko kontrol oso-oso dugula aintzatesten duten mila arau eta lege egon daitezke; arazoa, aldiz, ez da horien eskasia, eraginkortasuna baizik. Gure datuen bat behin sarean dagoela, AGren, KArean, EBJAren edo GEEAren epai bat eman arren, zail izango dugu saretik kentzea: Zuzenbideak ez du botererik eremu orotan, ez da ahalguztiduna. Orokorrean, tamalez, gizarteak bere datu pertsonalekiko duen kontzientzia oso txikia da, biziki txikia.

Bibliografía

- Aberasturi Gorriño, U. (2014): «Interneten ahaztua izateko eskubidea» Europar Batasuneko Justizi Auzitegiaren 2014ko maiatzaren 13ko epaiaren arabera», *Revista Vasca de Administración Pública. Herri Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 99-100, 1-41.
- Aberasturi Gorriño, U. eta Cubero Marcos, J.I. (2008): «Protección de los datos personales en las comunicaciones electrónicas: especial referencia a la Ley 25/2007, sobre conservación de datos», *Revista española de derecho constitucional*, 83, 175-197.
- Álvarez-Cienfuegos Suárez, J.M. (1999): *La defensa de la intimidad de los ciudadanos y la tecnología informática*, Aranzadi, Pamplona-Iruñea.
- Arenas Ramiro, M. (2010): «El derecho de acceso: Título III. Derecho de las Personas. artículo 15», in A. Troncoso Reigada, *Comentario a la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal*, Civitas, Madrid.
- Bennett C.J. eta Raab, C.D. (2006): *The governance of privacy, Policy Instruments in Global Perspective*, The MIT Press, Massachusetts.
- Campuzano Tomé, H. (2002): *Vida privada y datos personales*, Tecnos, Madrid.
- Conde Ortiz, C. (2005): *La protección de datos personales*, Dykinson, Madrid.
- Delgado Carravilla, E.; Puyol Montero, J. eta Lopez-Jurado Astray, M. (2018): *La implantación del nuevo Reglamento de Protección de Datos de la Unión Europea*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.
- Freixas Gutiérrez, G. (2001): *La protección de los datos de carácter personal en el derecho español*, Bosch, Bartzelona.
- Guasch Portas, V. (2014): *Las transferencias internacionales de datos en la normativa española y comunitaria*, Agencia Española de Protección de Datos-BOE, Madrid.
- Herran Ortiz, A.I. (1999): *La violación de la intimidad en la Protección de Datos Personales*, Dykinson, Madrid.
- Howard, P.N. eta Jones, S. (ed.) (2005): *Sociedad on-line: Internet en contexto*, UOC, Bartzelona.
- Lucas Murillo De La Cueva, P.M. (1990): *El Derecho a la Autodeterminación Informativa. La Protección de los Datos Personales Frente al Uso de la Informática*, Tecnos, Madrid.
- , (1993): *Informática y protección de datos personales*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid.
- Polo Roca, A. (2020a): «El derecho a la protección de datos personales y su reflejo en el consentimiento del interesado», *Revista de Derecho Político*, 108, 165-194.
- , (2020b): «Geolocalización, motores de búsqueda y cookies: tres grandes retos para la protección de datos», *Revista Jurídica de Castilla y León*, 52, 141-184.
- Rallo Lombarte, A. (2012): «Hacia un nuevo sistema europeo de protección de datos las claves de la reforma», *Revista de derecho político*, 85, 13-56.
- , (2017a): «De la “libertad informática” a la constitucionalización de nuevos derechos digitales (1978-2018)», *Revista de derecho político*, 100, 639-669.
- , (2017b): «El Tribunal de Justicia de la Unión Europea como juez garante de la privacidad en Internet», *Teoría y realidad constitucional*, 39, 583-610.
- , (2019): «El nuevo derecho de protección de datos», *Revista española de derecho constitucional*, 39. zk., 116. zk., 45-74.
- Rebollo Delgado, L. eta Serrano Pérez, M.M. (2018): *Manual de Protección de Datos*, Dykinson, Madrid.
- Sánchez Bravo, Á.A. (1998): *La protección del derecho a la libertad informática en la Unión Europea*, Universidad de Sevilla, Secretariado de Publicaciones, Sevilla.

